

Donostian, bildu dira: Aingeru Irigaray, buru ordeko, Mitxelena, Villasante, Arrue, Lojendio eta Lekuona euskaltzaiñak. Aresti, Anai Berriotxo, San Martin, Loidi, Bingliang-to apezpikua, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Etxaide eta Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu dauen ofizio bat irakurri da. Berrogetaamar milla peseta emotea erabagi dabela diño iztegiaren lanen izenean. Irigoyen jaunak diño Oleaga jauna eta bera egon zireala Diputaziñoako buruzagiagaz eskerrak emoten. Eta kobrau direala pesetok.

Aita Guillermo Beizama-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño *Pan Pin* umeentzako egiten dabon aldizkariaren diru kontuan apur bat estu dabiltzala eta nasaituteko zerbait emonik lagunduko geunskien. Artu begiz Euskaltzaindiak berrogetaamar ale suskriiziñoa eta zabaldu beitez egiten direan umeen esamifetan.

Fray Andrés de Cristo Rey Algorta-ko Trinitarioen Ministro jaunak karta bat idatzi dau. Diño seminaristen artean euskerea zabaltzen ari dala eta euskarazko liburu batzuk emongo ete geunskiozan. Bialdu bekioz Euskaltzaindiaren etxean dagozatenatik duban.

Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Diño denpora zati baten beintzat eztala batzarretara etorriko makal dabilelako eta Maiatzaren 29-an Begoña-ko Amaren oiñetan emon eutsiela asierea lanari "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak" Alkargo-koak. Baita Agustuko batzarrean urgazleak izentetan badira Bizkaiko biren izenak emon be. Arrue jaunak diño "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak"-en izenez orri bat zabaldu dala eta baita Bilboko eguneroko batean argitaratu be Jesusen Biotzaren Gorazarrez Bilboko "Santos Juanes" elezan egin dan eleizkizun bat aipatzen dala. Eta ori Euskaltzaindiak eztakiela eta gaiñera bere ustez eztala Euskaltzaindiaren zeregiña alako eleizkizunak egitea. Orretarako badagozala alkartasun bereziak kristiñauak bete aal izan daiezan euren erlejiñozko eginbearrak. Diño gaiñera, eta alan erabagi da, datorren illeko batzarraren aurretik bildu bear leukeala.

Izenteu zan batzar buruzagi jagon saillekoak.

Urgazle barrien izentetearen gaiñean berba egin da. Datorren ilean dozenerdi bat izentau beitez. Orretarako egokia izango da aal dala bi euskaltzaiñek firmauta eskabidea egitea, bakotxaren merituak labur aipaturik.

Irigoyen jaunak diño amaitu dala teatro sarira eta novela sarira lanak bialtzeko epea eta amasei teatro lan eta iru novela etorri direala. Euskaltzaindiak Bizkaiko

Ahoro Kaxeari juraduaren izenak bialdu bear deutsoz ontzat artu daizan. Novelara-ko Oleaga, San Martin eta Loidi jaunak izentau dira. Teatorako Mitxelena, Arrue, eta Aita Villasante.

Beste barik oi den otoitzez amaitu da batzarra.